



HAUR ETA NERABEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA



I KIROLAREN ETA AISIALDIAREN EREMUAN



AURKIBIDEA


Atarikoa

I Zatia

1. Sarrera
2. Aurrekariak eta funtsezko kontzeptuak
 - 2.1 Aurrekariak
 - 2.2 Funtsezko kontzeptuak
3. Babes-ordezkaria
4. Aplikazio-eremuak eta erantzukizunak
5. Bibliografia

II Zatia

1. Protokolo-eredua
 2. Konpromisoak
 3. Aplikazio-eremua
 4. Arriskuak prebenitzeko eta aztertze jarduketak
 5. Esku hartze jarduketak
 6. Jarraipen-jarduerak (monitorizazioa)
- I. eranskina: erakundeko adingabeak babesteko ordezkariaren izendapena eta haren eginkizunak



Dokumentu hau da Nafarroako Kirolaren Institutuak (NKI) egindako protokolo bat; hori idazteko elkarlanean aritu da Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin (NGI), Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuarekin⁽¹⁾. Nahitaez bete beharra dute kirol- eta aisialdi-esparruan adingabeekin lan egiten duten Nafarroako Foru Komunitateko erakunde guztiek, 8/2021 Lege Organikoaren arabera (47. artikulua).

Lehenbiziko zatian jasotzen dira arau-esparruarekin eta legea betetzetik eratorritako betebeharrekin lotutako alderdiak; zehazki, administrazio publikoei eta kirol- eta aisialdi-erakundeei eragiten dietenak.

Bigarren zatian, protokolo-eredu bat sartu dugu, eranskinekin. Kirol- eta aisialdi-erakunde bakoitzak dokumentua bere testuinguruan kokatu beharko du, beharrezkotzat jotzen duen guztia gehituta.

I. zatia

1. Sarrera

Haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateari buruzko ekainaren 4ko [8/2021 Lege Organikoak](#) ² agindu batzuk betetzera behartzen ditu administrazio publikoak eta kirol- eta aisialdi-erakundeak, ingurune seguruak sor ditzaten eta adingabeak indarkeriaren aurrean erabat babes ditzaten (LOPIVI, IX. KAPITULUA, kirolaren eta aisialdiaren esparruari buruzkoa, 47. eta 48. artikulua).

LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko 8/2017 Foru Legeak (34. artikuluan) eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legeak (29.e artikuluan) ere ezartzen dute protokoloak egiteko beharra.

2. Aurrekariak eta funtsezko kontzeptuak

2.1. Aurrekariak:

Europar azterlan bat egin da, CASES proiektua izenekoa, zenbait unibertsitatek sustatuta (tartean da Espainiako Vic-eko Unibertsitatea), eta datuak eman ditu haurrek eta nerabeek kirolean nahiz kirolaz kanpo jasandako indarkeriaren eta kalteen prebalentziari buruz. Nabarmentzekoa da 5 adingabetatik 1ek indarkeria jasan duela kirolean adingabea izateagatik.

2.2. Funtsezko kontzeptuak:

a) *Indarkeria:*

“Indarkeriatzat hartzen da adingabeei beren eskubideak eta ongizatea kentzen dizkien ekintza, ez-egite edo tratu arduragabe oro, baldin eta haien garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzen edo oztopatzen badu, edozein dela ere horiek egiteko modua eta bitartekoa, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egindakoa barne, bereziki indarkeria digitala” (LOPIVI, 1.2 artikulua).

¹ Hemendik aurrera NKI eta NGI ² L/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa; hemendik aurrera, LOPIVI

Nolanahi ere, honako hauek joko dira indarkeriatzat:

- Tratu txar fisikoa, psikologikoa edo emozionala.
- Zigor fisikoak, umiliagarriak edo iraingarriak.
- Arduragabekeria edo tratu arduragabea.
- Mehatxuak, irainak eta kalumniak.
- Esplotazioa, sexu-indarkeria barne.
- Ustelkeria, haur-pornografia eta adingabeen prostituzioa.
- Eskola-jazarpena, sexu-jazarpena eta ziberjazarpena.
- Hala eskatu gabe, pornografiarako sarbidea ematea.
- Sexu-estortsioa.
- Genero-indarkeria.
- Feminizidioa.
- Genitalen mutilazioa.
- Pertsonak arbuiatzea edo gorrotatzea sexu-orientazioagatik, genero-adierazpenagatik eta sexu-identitateagatik.
- Gizakien salerosketa, edozein helbururekin.
- Behartutako ezkontza, haurren ezkontza.
- Datu pribatuak jendaurrean zabaltzea, bai eta familian indarkeriazko edozein jokabide izatea ere.

b) Tratu ona:

"Haurren eta nerabeen oinarritzko eskubideak errespetatuz, printzipio hauek aktiboki sustatzea: elkarrekiko errespetua, gizakiaren duintasuna, bizikidetzaren demokratikoa, gatazka modu baketsuan konpontzea, legearen babes bera izateko eskubidea, aukera-berdintasuna, eta haurrak eta nerabeak diskriminatzeko debekua" (LOPVI 1.3 artikulua).

c) Ingurune segurua:

"Haurren eskubideak errespetatzen dituen eta sustatzen duen babes ematen duen ingurune bat, izan fisikoa, psikologikoa, soziala edo digitala." (3 m art.)

3. Babes-Ordezkaria

LOPVIren 48. artikulua araberak, adingabeekin kirol- eta aisialdi-jarduerak ohikotasunez egiten dituzten erakunde guztiek Babes-Ordezkaria (BO)³ izendatu behar dute.

³ Babes Ordezkaria, BO hemendik aurrera

Babes-Ordezkararen erantzukizunak:

- Erakundearen jardura-protokoloa proposatzea.
- Ezarritako protokoloak hedatzea eta betetzea.
- Haurren edo nerabeen aurkako indarkeria-egoera bat detektatu den kasuetan, dagozkion komunikazioak hastea.
- Adingabeentzat erreferentziazko pertsona izatea, harengana jo dezaten beren kezkak adierazteko.
- Neurriak hartzea kirola, jardura fisikoa, kultura eta aisialdia ez daitezen diskriminazio-uneak izan.
- Monitorizazio-sistema bat (erregistroa) ezartzea eta urteko memoria bat egitea.

4. Aplikazio-eremuak eta erantzukizunak

Haurren babesarekin eta tratu onarekin etikoki eta legez konprometitzea betebeharrak bat da kirol- eta aisialdi-jardueretan aritzen diren erakunde, klub eta pertsonentzat.

Kirolaren zein aisialdiaren esparruan, haurrekin eta nerabeekin izan behar dugun erantzukizuna helburu hauek lortzera bideratua dago funtsean:

- Ongizatea sortzea eta kirol- eta aisialdi-esperientzia onuragarri bihurtzea haurraren eta nerabearen garapen globalerako.
- Kirol- eta aisialdi-jardunean haurren eta nerabeen eskubideak errespetatzea.

Administrazio publikoek betebeharrak izan behar dituzte:

- Kirolean eta aisialdian haurrak eta nerabeak babesteko politika publikoa sortzea.
- Kirol- eta aisialdi-eremuan ingurune segurua eraikitzeke jarduketak bilduko dituzten jarduketa-protokoloak egitea.
- Sortutako politikak eta protokoloak betetzeko exijitzea federazioei, kirol- eta aisialdi-erakundeei eta profesionalei.
- Hasierako eta etengabeko prestakuntza espezializatua eskaintzea haurren eta nerabeen oinarritzko eskubideen arloan.
- Komunikazio- eta salaketa-bideak ezartzea, profesionalek, erakundeei edo haurrek eta nerabeek indarkeria-egoeren berri emateko aukera izan dezaten.
- Sexu-delituen ziurtagiri negatiboa eskatzea.
- Gauzak erraztea eta laguntza ematea erakundeei, federazioei, klubei eta pertsonari, aholkularitza eta prestakuntza egokiaren bidez.

Kirol- eta aisialdi-erakundeek (federazioak, klubak, udalak edo adingabeekin lan egiten duen edozein erakunde) betebeharrak izan behar dituzte:

- a. Administrazio publikoek kirolaren eta aisialdiaren esparrurako ezartzen dituzten jarduketako protokoloak aplikatzea; protokolo horiek aipatzen dira Haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 47. artikuluan.
- b. Monitorizazio-sistema bat ezartzea, bermatzeko betetzen direla adingabeen babeserako protokolo horiek.
- c. Babes-Ordezkaria izendatzea, harengana jo dezaten adingabeek beren kezkak adierazteko; hura arduratuko da ezarritako protokoloak hedatzeaz eta betetzeaz, bai eta behar diren komunikazioak abiarazteaz ere, haurren edo nerabeen aurkako indarkeria-egoera bat detektatu den kasuetan.
- d. Behar diren neurriak hartzea kirola, jarduera fisikoa, kultura edo aisialdia ez dadin izan bazterkeria-une bat, dela adinagatik, arraza- edo etnia-jatorriagatik, desgaitasunagatik, sexu-orientazioagatik, sexu-identitateagatik edo genero-adierazpenagatik, edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialengatik. Horretarako, lan egin behar da hurrekin eta nerabeekin beraiekin, bai eta haien familiarekin eta profesionalekin ere, irain eta adierazpen umiliagarri eta diskriminatzaileen erabilera arbuiazteko ⁴.
- e. Haurrek eta nerabeek beren prestakuntzaren eta garapen integralaren alderdi guztietan aktiboki parte har dezaten sustatzea.
- f. Harremanak eta komunikazioa sustatzea eta indartzea kirol- eta aisialdi-erakundeen eta gurasoen (edo tutoretza-, zaintza- edo harrera-eginkizunak betetzen dituztenen) artean.
- g. Era berean, kirol- eta aisialdi-erakundeetan lan egiten dutenek prestakuntza espezifiko jaso beharko dute desgaitasuna duten haur eta nerabeei arreta egokia emateko.

5. Bibliografia


5.1. Legedia

- [8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateari buruzkoa \(LOPVI\)](#)
- [12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa, haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa \(21. art.\)](#)
- [17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa](#)
- [14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoa](#)
- [8/2017 Foru Legea, ekainaren 19koa, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa](#)
- [15/2001 Foru Legea, uztailaren 5ekoa, Nafarroako Kirolari buruzkoa](#)

⁴ Kirol-lehiaketa batean edo aisialdiko jarduera batean hitzezko erasoak edo beste mota batekoak gertatzen badira, erakunde antolatzaileak (ordezkariak, epaileak...) ezarritako protokoloa aplikatu beharko du, lehiaketa edo jarduera une batez geldiaraztea barne, baita bertan behera uztea ere, beharrezkoa izanez gero.

5.2. Materialak eta baliabideak

- [Nafarroako Kirolaren Institutuaren bitartekaritza bulegoa](#)
- [Nafarroako Berdintasunerako Institutua](#)
- [LGTBIFOBIA bidezko gorroto-delituen biktimentzako gida](#)
- [Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko oinarritzko gida](#)
- [Emakumeen aurkako indarkeria - gazteendako gida \(gaztelaniaz\)](#)
- [Kattalingune, LGBTBI+ pertsonen eta haien senideei informazioa eta arreta \(sexologikoa eta juridikoa\) emateko Nafarroako Gobernuaren zerbitzu publikoa](#)
- [Kirol Kontseilu Gorena: sexu-abusuak prebenitzeko eta detektatzeko gidak \(gaztelaniaz\)](#)
- [Kirol Kontseilu Gorena: i-Protect \(gaztelaniaz\)](#)
- [Haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateari buruzko Lege Organikoaren gaineko gida \(gaztelaniaz\)](#)
- [CASES proiektua \(gaztelaniaz\)](#)
- [CASES proiektuaren emaitzak \(gaztelaniaz\)](#)
- [CASES proiektuaren datuak \(gaztelaniaz\)](#)
- [CASES-Espainiari buruzko txostena \(gaztelaniaz\)](#)
- [VOICE \(gaztelaniaz\)](#)
- [KIVA \(gaztelaniaz\)](#)
- [ATERPE programa](#)
- [Safeguardian.org: nazioarteko babesak kirolean ari diren adingabekoentzat \(gaztelaniaz\)](#)
- [Safeguardian.org: autodiagnostikoa \(ingelesez\)](#)
- [Kirol Segurua, salatu online \(gaztelaniaz\)](#)
- [UNICEF: IKUSI, BABESTEKO \(gaztelaniaz\)](#)
- [HAURREN PLATAFORMA: "Kirola, haur eta nerabeendako ingurune segurua" \(gaztelaniaz\)](#)
- [ANIZTASUNA BESARKATZEA: Jazarpen homofobiko eta transfobikorik gabeko hezkuntza baterako proposamenak - Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, 2015 \(gaztelaniaz\)](#)



HAUR ETA NERABEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURRREAN JARDUTEKO ERAKUNDEAREN PROTOKOLOA

Protokolo honen helburua da haur eta nerabeak indarkeria mota guztien aurrean babestea, dokumentuaren I. zatian jasotzen den bezala.

1. ARGITALPEN-DATA ETA BERRIKUSPEN-DATA:

Protokoloa urtero berrikusi behar da, argitaratu zen egunetik kontatzen hasita.

Protokoloak erakundearen gobernu-organoaren oniritzia izan beharko du.

2. KONPROMISOAK

Erakunde honek konpromisoa hartzen du haren parte diren haur eta nerabeendako ingurune seguruak eta tratu onekoak eraikitzeko.

Bereziki, hitzematzen du lan egingen duela indarkeria-jokabideak prebenitzeko, saiaturiko dela jokabide horiek ager ez daitezen, eta aurre egingen diela gerta daitezkeen salaketei eta kexei. Konpromiso hauek hartzen ditu:

- Haurrek eta nerabeek beren prestakuntzaren eta garapen integralaren alderdi guztietan aktiboki parte har dezaten sustatzea.
- Entitatean egiten diren kirol- eta aisialdi-jarduerak programatu eta diseinatzekoan, oinarri hartzea adingabeen eskubide eta askatasunetikiko errespetua, honako hauek barne: sexu- eta genero-aniztasuna, berdintasuna, diskriminaziorik eza eta indarkeria-mota ororen debekua.
- Ezarritako jarduketa-protokoloa hedatzea eta aplikatzea.
- Agintari eskudunei informazioa ematea delitu diren indarkeria-kasuak gertatzen direnean.
- Lanean diharduten langileek sexu-deliturik egin ez izanaren ziurtagiria dutela bermatzea, aplikatzekoa den araudian ezarritakoaren arabera.
- Haurren eta nerabeen oinarrizko eskubideen arloko hasierako eta etengabeko prestakuntza espezializatua bultzatzea adingabeekin ohiko harremana duten profesionalentzat.
- Erakundean aurkeztutako laguntza-eskaerak azkar eta eraginkortasunez ebaztea.
- Indarkeriazko edozein jokabideren berri eman duten biktimak edo hirugarren pertsonak babesteko neurriak hartzea.
- Kasu posible batekin lotutako dokumentazioaren konfidentzialtasuna eta zaintza egokia

bermatzea, datu pertsonalak babesteari buruzko araudian xedatutakoaren arabera (3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa).

- Monitorizazio-sistema bat ezartzea, bermatzeko betetzen direla adingabeen babeserako protokolo horiek.

3. APLIKAZIO-EREMUA:

Protokolo hau erakundeak egindako barneko eta kanpoko jarduera guztiei aplikatuko zaie, bai eta erakundeko kide diren pertsona guztiei ere: kirolariei, zuzendaritzako langileei, teknikariei eta administrazioari eta zerbitzu eta langileei, edozein dela ere erakundearekin duten lotura-mota, lan-harremana edo kontratu-mota.

4. ARRISKUAK PREBENITZEKO ETA AZTERTZEKO JARDUKETAK

- Babes-Ordezkaria izendatzea eta erakundearen barrenean jakinaraztea nor den eta zein eginkizun dituen. 1. ERANSKINA
- Protokoloa idaztea eta erakundearen estamentu guztietara hedatzea (familiak, teknikariak, kirolariak, etab.). Labur azaltzea zer den indarkeria, eta zer bitarteko dauden indarkeriaren berri emateko eta haren aurka jarduteko, garbi adierazita nor den Babes-Ordezkaria eta nola jarri harremanetan harekin.
- Protokoloa erakundearen web-orrietan eta sare sozialetan argitaratzea.
- Haurren eta nerabeen oinarrizko eskubideen arloko hasierako eta etengabeko prestakuntza espezializatua ematea adingabeekin ohiko harremana duten profesionalei, LOPIVren 5. artikulua araber.
- Erakundeak egokitzen dituen beste jarduketak batzuk.
- Kaltea edo indarkeria jasateko arriskuak edo arrisku-egoera potentzialak aztertzea:

Egoerak aztertu behar dira, eta saihestu egin behar dira honako jokabide hauek: indarkeria-kasu izatera iristen ez direnak baina desegokiak eta gaizki ulertzeko modukoak direnak, edo berez arriskuak ekar ditzaketenak. Edo zentzuz begiratuta, adingabeari deserosotasuna, ezongia edo larritasuna eragin diezaiokeen beste edozein.


ARRISKU-EGOERA	PREBENTZIO-EKINTZAK
Bilerak	Ez izan elkarrizketarik adingabeekin gun e itxietan edo bakarka.
Joan-etorriak	Ez ibili adingabearekin bakarrik ibilgailu pribatu batean.
Sare sozialak ⁶	Ez erabili sare sozialak adingabeekin komunikatzeko.
Aldagelak	Errespetatu aldageletan haur eta nerabeak aldatzen ari diren uneak.
Kontaktu fisikoa	Saihestu beharrezkoa ez den kontaktu fisikoa, eta ez inbaditu gorputzaren intimitatea eta intimitate psikologikoa
Komunikazioak	Ez erabili hizkera desagokia (zakarra, sexista, ironikoa) Saihestu konnotazio edo izaera sexuala duten txantxak, iruzkinak eta jokoak.
Beharrezkotzat jotzen diren bestelako jarduerak.	

5. ESKU-HARTZE JARDUKETAK:

Indarkeriaren biktima den edozeinek, edo egoera horien berri duenak, laguntza eskatzeko aukera izanen du ahoz edo idatziz, Babes-Ordezkariekin harremanetan jarrita.

1. Babes-Ordezkariek laguntza-eskaera jaso eta gehienez ere hiru egun balioduneko epean hasiko du prozedura. Prozedura formalak eskaera idatziz aurkeztea eskatzen du. Babes-Ordezkariek erreklamazioaren xede den pertsonari jakinaraziko dio erreklamazio bat aurkeztu dela eta zer jokabide iraingarri egozten zaion.
2. Babes-Ordezkariek, inplikaturako pertsona guztien intimitaterako eta duintasunerako eskubidea errespetatuz, bilera bana egingen du alderdi bakoitzarekin, baita lekuko posibleekin ere, gertaerei buruzko informazio guztia biltzeko.
3. Kasua arina denean, gatazka bitartekaritzaren bidez konpontzen saiatuko da.
4. Babes-Ordezkariek egoki deritzen kautelazko neurriak hartzeko proposatuko dio erakundeko organo eskudunari, akusazioaren larritasuna kontuan hartuta. Hartutako neurriek ez diete inola ere kalterik eraginen ustezko biktimak kirol- edo aisialdi-jarduera garatzeko dituen baldintzei.
5. Babes-Ordezkariek txosten bat egingen du ateratako ondorioekin, eta erakundeko organo eskudunari helaraziko dio, hala badagokio, dagozkion jarduketak egin ditzan.
6. Protokolo honetan jasotako egoeretako batzuk delitu gisa tipifikatuta daude Zigor Kodean, eta salatzaileari jakinarazi behar zaio Fiskaltzara jo dezakeela. Kasu horretan, prozedura hau abian jarriko da, jakinik egoera horretan egin daitezkeen ekintzetako bat dela, baina ekintza gehiago ere egin daitezkeela edozein instantzia administratibo edo judizialean.

⁶ Sare Sozialak hemendik aurrera RRSS



⁷ Kasu batzuetan ez da posible izaten bitartekaritza. Adibidez, kontuan hartu behar da bitartekaritza berariaz debekatua dagoela emakumeen aurkako indarkeria-kasuetan.


** Sexu- edo genero-aniztasunarekin lotutako kasuetan Kattalingune zerbitzura jo behar da.

6. JARRAIPEN ETA MONITORIZAZIO JARDUERAK

Kasuen jarraipena egingo da.

Inplikaturako pertsonak babestuko dira eta datuen konfidentzialtasuna bermatuko da.

	ZEREGINAK	DATA	EKINTZAK
1	Babes-Ordezkaria izendatzea		Eranskina betea
2	Protokoloa onetsi eta sinatzea		Onespen-akta egitea
3	Protokoloa hedatzea		Argitaratu den webgunerako esteka. Erakundeak hedatze-ekintzak egitea familiekin, kirolariekin, entrenatzaileekin, aisialdiko begirale eta zuzendariekin eta abarrek.
4	Sexu-delituen ziurtagiria eskatzea		Erregistratu da
5	Babes-Ordezkaritari prestakuntza		Egindako ikastaroen zerrenda
	Haur eta nerabeekin lan egiten duten pertsona guztien prestakuntza		Egindako ikastaroen zerrenda
	Kasuen monitorizazioa		Erregistro bat egitea (urteko memoria)
6	Bestelakoak		



LAGUNTZA ESKATZEKO INPRIMAKIA										
ESKATZAILEAREN IZEN-ABIZENAK:										
SEXUA:										
ADINA:										
ROLA:		☐	JOKALARIA	☐	ENTRENATZAILEA	☐	ARBITROA	☐	BESTE BAT	☐
TELEFONOA:										
Adingabea bada, adierazi familiarekin edo legezko tutoreekin harremanetan jartzeko datuak.										
ERASOA JASAN DUENAREN IZEN-ABIZENAK										
Eskaera eraso jasan duenak egin badu, ez da bete behar										
SEXUA:										
ADINA:										
ROLA:		☐	JOKALARIA	☐	ENTRENATZAILEA	☐	ARBITROA	☐	BESTE BAT	☐
TELEFONOA:										
INDARKERIA-MOTA		☐	Fisikoa	☐	Psikologikoa	☐	Irainak	☐	Sexuala	☐
			Irudia datuak	☐	Sare sozialak	☐	Bertze bat	☐		☐
Lesioak ditu:		☐	BAI	☐	EZ	☐	NON			
Jakinarazi diozu erakunderen bati?										
Zein agintariri jakinarazi dio?										
GERTAEREN DESKRIBAPENA: (adierazi inplikaturako pertsonak eta ikusitako jokabideak, baita balizko lekukoak ere)										
ESKAERA:										
Adingabearen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloa hastea eskatzen dut							☐	BAI	☐	EZ
Sinadura:										
.....(e)n, 202.....(e)koaren(e)(a)n.										

I. ERANSKINA

ERAKUNDEKO ADINGABEEN BABES-ORDEZKARIAREN IZENDAPENA ETA HAREN EGINKIZUNAK

KLUBA:

202 -202 denboraldia

.....jaunak/
andreak, adinez nagusia, DNI....., NAN zenbakia dut, eta
..... entitateko idazkaria naizen aldetik
(egoitza soziala:-(e)n.....
.....kalea,, zk., IFK:
.....), honako hau

ZIURTATZEN DUT:

Adingabeak Indarkeriaren aurrean Babesteko Protokoloa betetzeko (8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateari buruzkoa), jarraian zerrendatutako datuak dituen pertsona izendatu dela gure erakundeko ADINGABEAK

IZENA:	
NANa/PASAPORTEA:	
TELEFONOA:	
HARREMANETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA:	
HARREMANETARAKO POSTA-HELBIDEA:	

Ziurtatzen da, halaber, izendatutako pertsonak izendapena onartu duela, kargua leialtasunez eta protokoloan ezartzen diren funtzioen arabera betetzeko konpromisoarekin:

- Jarduketa-protokoloak ezagutzea eta aplikatzea.
- Erakundeak ezarritako protokoloak hedatzea.
- Haurren edo nerabeen aurkako indarkeria-egoera bat detektatu den kasuetan jardutea.
- Haurren eta nerabeen parte-hartze aktiboa sustatzea, kezkak adieraz ditzaten.
- Erakundeko kirol-eragileen arteko komunikazio-bideak indartzea.
- Kirol-jarduna diskriminazio-egoera izan ez dadin neurriak hartzea.
- Erakundeko zuzendaritzari aholkatzea langileek zer-nolako prestakuntza behar duten indarkeriaren prebentzioaren eta indarkeriari aurre egitearen arloan.
- Aldian-aldean arriskuak ebaluatzea erakundean, eta indarkeria-arrisku posibleak minimizatzeko plan bat garatzea.
- Ziurtatzea erakundean badirela haurrak eta nerabeak babesteari buruzko prestakuntza duten langileak.
- Kasuen jarraipena, monitorizazio-sistema bat (erregistroa) ezartzea eta urteko memoria bat egitea.
- Indarkeria-egoera baten biktima izan ahal izan den adingabearen interesa defendatzeko behar diren prebentzio- eta prekauzio-neurriak hartzea.
- Indarkeria-egoeraren biktima izan den adingabea behar bezala bergizarteratzen dela zaintzea, kirol- edo aisialdi-jardueretan jarraitzea sustatuz eta bultzatuz.
- Gatazkak modu baketsuan konpontzeko metodo alternatiboen erabilera sustatzea, hala nola bitartekaritzarena.

Eta horrela jasoa geldi dadin eta behar diren ondorioak izan ditzan, honako hau sinatzen dut.

.....(e)n, 202.....(e)koaren(e)(a)n.

Idazkaria

Izena:.....

Burua O.E.

Izena:.....

Babes-Ordezkaria

Izena:.....

